

FUTURE, NO FUTURE

(ETORKIZUNA, ETORKIZUN EZA)

1994 "Ereintza" Ipuin Lehiaketaren "herriko egileari" 1. Saria, euskaraz

Jon Alvarez Gerriko

-Bai. Garaia iritsi da eta badakit. Prest nengokela pentsatu dut, baina nor dago prest. Ez dakit, noski, zer esan; ez dut ezer pentsaturik eta hogeita-zortzi minututako diska batetan ezingo da inoiz gustora sentitu ene gorpuzta, ene izaera amaiera aldean... Nola ipintzen da ehun eta hogeitalau urtetako bizipen bat, enea, diska kupidagabe honetan. Besteek ere ez zekiten nondik heldu, alegia, beste bi lagunen diskak entzun ostean malkoz bete zitzaizkidan begiak, baina era berean harrotasunez bete zen nire bihotza haiek erakutsitako duintasunarengatik, nahiz eta istorio ordenugabe bat aurkeztu. Zeren Joan eta Mirenen diskak entzun ahal izan nituen orain hilabete eta era klandestinoan; ia bost egun eman nituen Central Labs Laborategiko Max "ahalguztidunaren" aurrean. Badakit ez dela legezkoa Advice diskak gain beste batzuk entzutea norbere "amaiera aldearen" urtean (hau eufemismo krudela), baina mundu inpersonal eta sentimendurik gabeko honetan nire bi lagunen, lagun handien diskak entzun nahi nituen, entzun behar nituen. Do you understand, Mark?

-You can continue speaking to me in Basque, miss Olatz.

"2098.eko abenduaren lehena da. Gaurko eguraldia eguzkitsu baina hotz prestatzen ari gara. Gualdea zortziretan eragingo dugu zehazki eta elur maluta zenbait eroriko dira orduan Ipar Hemisferioan. Orain 11:50 GMT da eta Ipar Hemisferioko datuak honakoak dira: temperatura 10° C; presio atmosferiko eragindua 1026 milibare; haizea iparraldetik 2 indarrez (kontrolpean); populazioa sei mila miloi gizaki (6.000.352.866); amaiera aldea 45.350; 55 pilula hartzea derrigorrezkoa da 13:00 GMT baino lehen. Systemaren hurrengo saio gogorarazlea 12:00 GMT direnean".

-Txikle bat hartuko nuke. Txikle: gai eranskor eta bigun bat zen, ahoan sartu eta mastekatzen zenuena etengabe. Berdeak, gorriskak, horiak ohi ziren, menta, marrubi nahiz limoi zaporeekin. Ez zaizkit inoiz ahaztuko, gorriak nituen gogokoen... Eta globoak egiten genituen txikleekin: handiagok baziren hobe! Ondoren gainera, lehertu egiten ziren eta sarritan aurpegi osoa goma liskatsu horretaz betetzen genuen, ezin kenduaz aurpegitik hain erraz, oster... Nik ez nekien globorik egiten eta benetan lotsati nintzen: min-

gaina txiklean murgildu eta murgildu ohi nuen, baina putz egitean... Bospasei urte nituenean Mikelek erakutsi zidan. Mikel anaia nuen, baina berezia; nik baino sei urte gehiago bazituen, baina inoiz ez zen herabe izan ni bere lagun taldera eramaten ninduenean. Benetan ondo berak eta bere lagunek moto bana erosi zutenean... Neuk... ez dakit zein adin nuen, baina Mikelen atzean jezarrita, bere larru beltzeko berokian jartzen nituen ene besotxoak, irmoki heldu eta abiada bizian edonora joaten ginen denak. Mikelek lilura berezi bat piztu zidan; bost axola nire adineko lagunik ez edukitzea, baina lagun talde hartan nigatik edozer egingo zuketean: maskotatxo nintzen beharbada. Ilea airearen menpe, errepidea gure lege, motor hotsa gure sinfonia... Baina bapatean Mikelek ez ninduen motoz eraman, ez ninduen esnatu gauean, bakarrik joan eta ez zen itzuli... Sentimenduak gaur egun zai-



lak zaizkit espresatzen, baina badakit oraindik Systemak ez duela lortu horiek guztiz ezabatzea...

"Munduak ez du gaitzik, ez arazorik: pobrezia, gerra, arrazakeria, gosea, istripuak ez dira existitzen: zoragarria. Lurreko biztanlego osoak bizi-kalitate maila berean biziturik, ez du elikagai, energia edo oxigeno faltarik izango inoiz. Baina erne: ez dago mugarik eta Lurreko gobernuak Systema da, konputagailu-sare erraldoia. Munduko biztanlegoak ez ditu sentimenduak, elkarlana, pairamendua ezagutzen; konputagailuen menpean ia, ez dira gizaki adimenduak, bizitza osoa eta heriotza programaturik daukate. Superpopulazioa kontrolatzeko neurri oso zorrotzak erabiltzen dira, bizi itxaropena oso luzea, luzeegia, bait da. "Konputagailuak gizakien zerbitzura, gizakiak konputagailuen zerbitzura" Systemaren 11 Lege Gorena da. Erresistentzia izpiak badaude leku ezkutuetan baina laguntza behar dugu. S.O.S." (Iraultza ostean, Systemaren aurka egindako diska klandestino baten zatia denboran zehar bidaiatzea lortuz gero prozesua eza-gutu eta eragozteko).

-Oroitzapenek hunkitzen naute, guztiz gogokoak ez badira ere, nik eta beste gutxi batzuk garelako oroitzapenez, benetazko oroitzapenez bizi garenak. Gero eta gutxiago gara Final Day programak direla eta; era berean, gaurko eta biharko belaunaldiei Systemak ematen die heziketa... Neuk liburu pila nituen. Liburuak: paperezko orri idatziz osaturiko objektu karratuak. Ez, ez ziren hain soilak, askoz ere gehiago ziren, zirrarak sortzeko gai. Irakurtzean irudimena martxan jartzen zenuen, mundu nahiz bizitza desberdinetan zeurea murgilduz, VRM-rik, Errealitate Birtualerako Makinik gabe... Unibertsitatean nintzenean idazteari ekin nion. Ene sormenak ziren, nik sorturiko errealitateak!

-Half time.

-Berandu iritsiko al naiz amaierara? Zer dela eta esan behar didazu... Trenean ere berandu iristen zinen... Nostalgiak apurtzen nau batzutan... Ahh, mundu honek erraiak erretzen dizkit. Afrikan geundela, Joan eta biok besteak beste, elkarlanean, ume-txo argalak, umeen ama argalak eta gizonezkoak ere, argalak, elikatzen, sendatzen, laguntzen genituen. Hango gizarajoak oroitzen ditut geure autoaren inguruan eskean; idorteak, hamarkadetan zehar luzatzean, gaisotasunak biderkatu zituen: hantxe harrapatu zigun Iraultzak. Systema ugaltzen hasi zen, zeharo bidegabekoa zen egoera bapatean, egunsenti batetan, konpondu zelarik. Haurrak nahiz gizon-emakume argal eta biluztu horiek Erreformen sartu ziren: haien pentsamoldea nahi bezala moldatu eta berdintasuna lortu zen, lortu zenuten pertsonen artean. Systemak hala ere ez du sentimendurik lorturen, horren imintzio

zentsugabeko bat gehienez. Berdintasunaren oztopoa da, makina eta pertsonaren arteko desberdintasunaren oztopoa; eta guztia ezabatzea ez zaizue erraza egingo. You can't understand.

-I can understand 687 languages, miss Olatz.

"2098.eko abenduaren lehena da. Lan egin ondoren VRM aparailua piztu eta Cold programa piztea gomendatzen dizuegu, neguan sartzerako goaz aste bi barru. Errobiten kargatzaileak martxan jarriko dira gaur gizakien pilula hartzea eta gero: probetxa itzazue arratsaldean zuen gozamenerako erabiliz... Orain 12:15 GMT da eta saio berezi hau Useful Afternoon, Arratsalde Probetxuzkoa izan duzue. Systemaren hurrengo saio gogorazlea 12:20 GMT direnean".

-Inozo hori. Ene etxean ez dut ordenagailu orojakitun bat nahi, ez dut errobit bat laguntzat eduki behar, ez dut VRM edo hologramagailuekin nire asti libreka igaro nahi; ez dut mundu hau gogoko: non dira tabernak, lagungiroa, gastronomia (gorroto ditut pilulak), maitaleak, gorrotoa, musika... Jar iezadazu rock and roll bat, Mark!

-Repeat it, please...

-Zu, hain zara gorrotagarria. Ez dut izenik emango baina egun arnas apur bat den itxaropena ez duzue hain erraz itoko. Baina gaur 45.350 FD, bihar zenbateraino beharko duzue gizakia? Inoiz ez dut ikusiko lotsa izpirik, hunkipenik, poza dena den "amaiera aldera" iritsiko den pertsona berrietan. Mundu honetan gorrotatzen dudaren pertsonifikazioa (barkatu) zara, Mark.

-You should use your effective time better, Olatz. Two minutes...

-Hobe nuke, bai, gorrotoa neurekin eraman, ametsezko iraultza baten nahia desegin, geldiezina izango den prozesu honen amaieran beste era batetako mezua uztea, ene oroitzapen ordenugabeak, ezta? Zure sabel bereizlea martxan jarriko zenuke beharbada. Ez dakit zergatik samintzen naizen, hobe hala ez balitz, lasaitasunean, kemena izan eta diska hau amaitu behin betikoz. Rock and roll, Mark...

-Orain gogoratzen dut txikleak ahoan sartuta eduki, globoak egin eta gora eta behera eragin ondoren, zapore gabe geratzen zirela eta nire anaiak biraoka botatzen zituela ahotik, tua bailitzen...

-Effective time over.

